

# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

326 - 2024ko UZTAILA



SUA ETA EURIA  
BATUKADAREN ERRITMOAN!



## POSTONTZIA

- ✓ *Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?*
- ✓ *Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?*

*Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.*

## ZUZEN ETA JATOR

### \*'Hemendik ibiliko naiz udan' ala 'hemen ibiliko naiz udan'?

\**Hemendik ibili* esapidea okerra da. Izan ere, NONDIK kasuak bi balio nagusi ditu, oro har: abiapuntua izatea (*Etxetik etorri zen*) edo 'barrena' edo 'zehir' ideia adieraztea (*Basotik/basoan zehir ibili zen*).

Askotan, ordea, gaztelaniaren eraginez-edo, NONDIK kasua erabiltzen da berez NON kasua erabili beharko litzatekeen tokian. Adierazitako *-tik* kasuak 'barrena' edo 'zehir' adiera ez badu, NON kasua da egokia era honetako esaldietan:

- ▶ *Menditik dabil* (> Mendian dabil).
- ▶ *Plazatik egon gara* (> Plazan egon gara).
- ▶ *Kaletik ikusi dut* (> Kalean ikusi dut).
- ▶ *Hortik al dabil Patxi?* (> Hor al da/dabil Patxi?).
- ▶ *Utzi txamarra hortik* (>Utzi txamarra hor non-bait).
- ▶ *\*Lehen askotan etortzen zen gure dendatik* (> gure dendara).

\*Izartxoaren dutenak ez dira egokiak



## MAILOPE

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU: Mailope Kultur Elkarte. L.G.: NA 719/93 Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. [issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

· ERREDAKZIOA: Ainhoa Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK: Juan Antonio Garaikoetxea, Teresa Mariñelarena, Bittor Salvatierra, Ana Telletxea, Aiora Irastorza, Idoia Garmendia, Bingen Beguiristain, Ane Ubegun, isabela Apezetxea, Igor de Castro, Beñat Barberena, Maider Balda, Jone Gabari, Bea Buldain, Irati Garmendia.

· PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

· MAKETAZIOA: Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzejua eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT  
MULTIMEDIA

## AURKIBIDEA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 ▶ MAITE DITUT MAITE  
Betelu - Belutako langa

08 ▶ ELKARRIZKETA  
Izadi Balda (Lekunberri) eta  
Isabela Apezetxea (Uitz)



12 ▶ BATZARRE

14 ▶ ERREPORTAJEA  
Euskara indartzeko, udako  
ludotekak



17 ▶ KULTURA

24 ▶ KIROLA  
Bingen Beguiristain (Aldatz)



31 ▶ AGENDA



**Hegoa eta Alaitz Garcia Sanz**  
Ekainaren 20an, 5 urte eta 29an, 8 urte.  
Zorionak, txikitak! Espero dugu asko disfrutatu izana zuen urtebetetzeak. Muxu potolo bat, asko maite zaituztegu!



**Eneko Etxeberría Arginarena**  
Uztailaren 12an, 4 urte. Zorionak, potxolo! Egunderra pasa dezazula opa nahi dizugu; jarraitu horren jator eta alai. Muxu erraldoi bat familia guztiaren partez!



**Iraia Elordi Sanz**  
Uztailaren 18an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Egunderra pasa zure urtebetetze egunean familia guztiaren partetik! Muxu handi bat!



**Ane Elordi Sanz**  
Abuztuaren 2an, 2 urte. Zorionak, etxeko txikiari, zure bigarren urtebetetze egunean! Egunderra pasa, muxu handi bat etxeko guztien partetik!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago! Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.



## AHT ZUDAKETAN

Ekainak 8, Sakanako AHT-aren (abiadura handiko trenaren) zundaketen aurkako ekimena antolatu zen. Arakilen egindako mendi martxan 40 lagun inguru elkartu ziren, bertan, Sakanan abiadura handiko trena egiteko lehengo urratsak gelditzeko eskatu zuten parte-hartzaileek. Mendi martxan, Arakil eta Larraungo hautetsiek hitza hartu eta ingurunea mehatxatzen duten bestelako hainbat proiekturi buruz hitz egin zuten, besteak beste: Basaburuk instalazio eolikoa, Egiarreta edota Ziordi alderako instalazio fotoboltaikoak, eta Aralar zeharkatuz Arakiletik Larraunera egin nahi duten gasbidea. Izurdiagako iturritik pasa eta abiapuntuan amaiera eman zioten ibilaldiari.



## KARTEL LEHIAKETA

Lekunberriko Festetako kartel lehiaketa abian da eta bi kategoria izanen dira: **15 urte artekoak** (150€-ko saria eskola materialean) eta **16 urtetik gorakoak** (200€-ko saria dirutan). Kartela fisikoki edo USB batean formatu digitalean aurkeztu beharko da, derrigorrez A3 tamainan, modu bertikalean eginda. Testuan hau ageri beharko da: LEKUNBERRIKO FESTAK 2024 Urriaren 9tik 13ra. Egilearen datuak (izen-abizenak, adina eta kontaktua) gutun-azal txikiago batean sartuak izanen dira eta ezizen batekin sinatua. Kartelak Udaletxean edo Mitxausenean eman daitezke eta epeak ekainaren 10etik abuztuaren 23ra iraunen du.



## TEKNOADINEKO LANDALAB

Ekainaren 20an, Teknoadineko Landalab proiektuari buruzko lehengo saioa gauzatu zen Gabari Gune Irekian. Esperimentazio hau Europako BERTAN proiektuaren zati bat da. Eredu berri-tzaile honen helburua bakardadean dauden adineko pertsonak goiz identifikatzea da, batez ere kalteberatasun eta arrisku-kasuak. Horretarako, prebentzio neurriak ezartzeaz, harreman sozial osasuntsuez eta zaintza komunitarioez hitz egin dute, gauza hauen guztien garrantzia azpimarratuz.

## ► Maider Balda (Lekunberri)



*Uda iristear ta gaude irrikitan, lagunekin elkartu momentu sarritan. Herriko festetara joateko birritan, plazetan dantzatzeko handi zein txikitan.*

*Bidaiak egiteko unea da orain, maletak hartu eta joateko noranahi. Hemen ere badira hainbat toki lirain: hondartza edo mendi aukera zure gain.*

*Doinua: Konplize ditut eta. Hurrengoa: Oihane Balda Ostiz (Gorriti)*

<p><b>ALIPROX</b> Lekunberri <i>janaridenda</i> hamabostaldiro eskaintza bereziak</p>	<p><b>OTXOTORENA</b> okindegia ARRIBE ADIII TLF BERRIA: 948 51 30 32</p>	<p><b>INFORMATIKA ARALAR</b> LEKUNBERRI - ARAITZ LARRAUN JALMENTA ETA AGORRITZA 634 551 743 infoaralar@gmail.com</p>	<p>Errotaledea 19, Lekunberri www.martilotoxiki.com 679 938 016</p>
<p><b>Betelu</b><sup>®</sup> Euskal Herriko Ura %100 PET birziklatua Ur Mineral Naturala www.betelu.com</p>	<p><b>BIDEGOXO JATETXEA</b> Jaunartzeak Ezkontzak Ospakizunak Enpresa ekitaldiak Usabal Kiroldegia 20400-TOLOSA 943 577 573 info@bidegoxo.com</p>	<p><b>CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.</b> HIRUROK S. VETERINARIOS Telefono zenbakia eta faxa: 948 50 43 31 Lekunberri</p>	<p><b>MALLOAK</b> ARTZAI GAZTAK Garaia Martineza GARTZA, Rufina Ib. 643 672 057 + Ibañeta, 643 511 057 Malloak.com - info@malloak.com</p>

## MAIATZAREN 27AN GERTATUTAKOAREN HARIRA

Pasa den maiatzaren 27an ibarreko bi herritarren aurkako pankarta, pintada eta hamaika esku-orriz josirik argitu zuen egunak Betelun. Udaletxe eta plaza inguruak bete zituzten, baita herritar horien lantokiko sarrera ere. Idatzietan, "maltratador" eta "abusiva" irakur zitezkeen, bai eta zuzenki pertsona bati zuzenduriko jazarpenaren leporatzea, emigrante nahiz zaintzaren auziari lotuta.

Pentsa daiteke gatazka pertsonalei erantzuten diela gertaturikoak, baina akusazio publikoen larritasuna ikusita, eta eragile zein instituzioen irakurketa baten absentsia, salaketa publiko hauei irakurketa publiko batekin erantzuten ausartuko naiz. Eta aurretik doa: leporatzeen faltsutasuna erabat garbi uzten dut.

Ekintzen formari erreparatu nahi nieke lehenik. Erreibindikazio itsurako mezu hauek ezkutuan jarri dira (goizeko 3:30 aldera), "anonimoki" (firmarik gabe), Beteluko plaza, udaletxe, aparkaleku, bizilagunen buzo, ate eta baita akusatuen lantokiko sarreran ere. Mezuen edukari helduz, tratatu txarrak egozten dira, diru aferak eta baita Beteluko herriaren inplikazioa gaian: "Betelu apoya a..."; "En Betelu se ayuda a...".

Hausnarketa sakonago bat eginik, gertakariak hainbat gogoeta ekar liezazkigukete. Ez al dira nahikoak tratatu txarren egoerak edo arrazakeria kasuak bideratzen ditugun mekanismoak ibarrean (zerbitzu sozialak, Tximuutxe, erasoan aurkako mahaia edota bide judiziala)? Eta, ustezko biktimak, zergatik ez dira elkarbizitzaren alde sorturiko mekanismo eta taldeetara gerturatu, gertakizunak hain larri eta nabarmenak badira? Jakina denean, adibidez, Tximuutxek bere jomugan artean lortu duela zaintza langile sektore feminizatu eta arrazializatuarekin

harremanak bermatu eta elkarlanak burutzea. Idatziak irakurri, eta forma eta edukia aztertutik, esan daiteke mezuek ez dutela inongo arazo sozialik kausatik salatzen (baizik eta guztiz pertsonalizatzen dutela), edota ez dutela espaziorik/aurrerapausorik planteatzen ustezko egoera txar konkretu bati aurre egiteko. Ordea, pankarta eta esku-orrizetan zabalduak salaketa honek, kalte zuzen eta pertsonalak eragitea du xede: bi herritar akusatu, gainerako Beteluko herritarrei kontrajartzeko asmatan. Esango dut, formek guztiz deslegitimatzen dutela salaketa, baita arrisksua dela "maltratador" bezalako hitzen erabilera hutsala (*banala*).

Ezin da ez-ikusiarrena egin halakoek zuzenean eragiten diotenean elkarbizitzari. Izan ere, begirada luzeago batekin, honek kalte besterik ez dakarrela ikusi daiteke. Nagusiki, eraso zuzena jaso dutenei; baina baita seinatuak geratzen diren ustezko biktimen sektoreko herritarrei; aurreko bi egoeretan egon daitekeen edonori; etab.. Ondore luzeagoa ere izan lezake, adibidez, gure arteko harremanetan mesfidantzak sortuz, batzuen arrazakeria justifikatuz, ... eta abar eta abar.

Bukatzeko, eginikoak onargarriak diren eta inoiz ezagutu ditudan muga denak gainditu ditu. Ez nuke gertaturikoa beste zerbaiten aurrekari izatea, ez eta (nire) erantzun baten faltak gertaturikoa legitimatzerik nahi.

Zalantza handiak izan ditut testu hau argitaratzearekin, baina muga oso garbi marraztuko dut: jardueren larritasuna biziturik, erasoak ezin du erantzunik ez jaso, ez hala erasotuen seme naizen horretatik.

Eskerrik asko familiakoen eta nire izenean babesa erakutsi eta galdetzeraz etorri zareten dozenaka lagunei.

**Mattie Garaikoetxea Zubillaga**

Hurrengo:

Leire Olano (Betelu)



**Irati Garmendia (Betelu)**

### Zergatik aukeratu dut?

Aitarekin behorak Aralarra igotzean ezagututako bidea da eta geroztik edozein egunetan egiteko oso gustukoa izan dudalako. Malloetako bista paregabeak eskaintzen dituen ibilbidea da eta oso argi markatuta egonik, ez da erraza galtzea. Gainera itzaletik doanez, beroa egiten duenean egiteko aparta da.

# maite ditut maite gure bazterrak

## Betelu - Belutako langa

**Ibilbidea:** joan-etorria

**Distantzia:** 12km

**Desnibela:** + 700 m

**Zailtasuna:** erraza



### Bidea:

- 1 Beteluko uretako aparkalekutik hasita, eskuinerantz joko dugu, 2 km inguru pista bati jarraituz, Lulotasa iritsi arte. Bertan, San Donato ezkererantz utzita, eskuinerantz egingo dugu, Kastabal garo eta berriro pista batean aurkitu arte.
- 2 Behin pista bukatzean, bide bat izango dugu parean eta horri jarraituz gorantz egingo dugu, biderearen hasiera aldean iturri bat aurkituko dugu, eta aurrerago Arrateko langa ere zeharkatu beharko dugu.
- 3 Gorantz jarraituz, atsedean hartzeko mahai bat eta baita ibarra ikusteko begiratoki batekin topatuko gara, eta jarraian Belutako langa izango da.
- 4 Bueltatzeko, bide berean jarraituko dugu pista iritsi arte, baina pista amaitu aurretik, ezkererantz geratzen den gurutzan sartuko gara, eta txendari jarraituko diogu.
- 5 Ondoren, Betelura doan gurdi bidea jarraituko dugu, eta Intzarako errepidearen hasieran aterako gara, aurrera jarraitu eta Betelura iritsiko gara.

**CONSTRUCCIONES**  
ERAIKUNTZAK  
**CONSTRUCCIONES**  
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK  
FATXADAK  
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683  
Lekunberri

ERREABILITAZIOAK  
IGELTSERITZA  
FATXADAK  
TEILATUAK

Oztegin kalea 2, Lekunberri 616 457 540  
construccionesganarbe@gmail.com 636 827 846

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

**TAXI**  
**SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA

INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA

INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

● ● Izadi Balda (Lekunberri) eta Isabela Apezetxea (Uitzi)

## “Gure ikerketak adierazten du zientzia-munduak zer alderdi on eskaintzen dizkigun”

Leitzako Batxilergoko lehenengo mailako Laborategiko Tekniken ikasgaiko ikasleek Elhuyar Zientzia Azokan parte hartu zuten Bilbon, bi ikerketa aurkeztuta: “Zigarrokinek eta medikamentuek hazien ernetzean duten eragina” eta “Hainbat materialen isolamendu termikoa”. Lehen proiektuak sari nagusia irabazi zuen, eta egileak Portugalgo zientzia-azokara joateko aukeratu zituzten. Izadi Balda (Lekunberri), Isabela Apezetxea (Uitzi), Maddi Etxarri (Arruitz) eta Nahiane Ijurko (Betelu) izan dira lan bikain horren egileak.



Isabela Apezetxea eta Izadi Balda.

### Zerk bultzatu zintuzten zientziaz eta ikerketaz interesatuta?

**Izadi:** Niri egia esan betidanik gustatu zait ikerketa mundua, biologia eta horrelako ekintzak. Uste dut nirekin zerikusia daukan adarra dela. Zuzenean “Laborategi Teknikak” ikasgaiko irakasleak bultzatu gintuen proiektu hau egitera. Ikasgai hau laborategian lan egiten ikastera eta esperimenduak egitera bideratua dago.

### “Zigarrokinek eta botiken eragina hazien erneketan aztertzea erabaki genuen”

Isabela Apezetxea

**Isabela:** Niri arrazoi nahiko antzekoak. Ondorioz, esperimendu desberdinak egiteko aukera izan genuen eta bueno, beste ikasgaiak, niretzat, agian ez ziren hain interesgarriak.

### Nola sortu zitzaizuen “Zigarrokinek eta botiken eragina hazien erneketan” ikertzeko ideia?

**Izadi:** Lehenengo brainstorming bat egin genuen (pentsamendu sortzailearen teknika bat da, ideia berriak sortu eta arazoak konpontzeko erabiltzen dena) eta ideia mordoa bota genituen, baina pixkanaka, proposamen desberdinak baztertzeko joan ginen, geneukan denbora eta materialaren arabera. Horren ondorioz, ideia guztiak ezin genituen gauzatu, eta zigarrokinek eta botiken eragina



Zigarrokinek eta botiken eragina hazien erneketan. Argazkia: Isabela Apezetxea.

hazien erneketan aztertzea erabaki genuen.

**Isabela:** Izan ere, aukeratutako ideia esperimendatzeko egokia iruditu zitzaigun, eta alde teoriko zein praktikoa zabaldua eskaini zigun.

### Zer metodologia erabili zenuten ikerketak egiteko? Zein izan da proiektua?

**Isabela:** Lehenengo beti informazioa aurkitzea.

**Izadi:** Bai, informazioa iturri desberdinetan bilatu genuen.

**Isabela:** Hori da, eta beti bezala hipotesi bat planteatu genuen, zer ikusi edo aztertu nahi genuen jakiteko. Hurrengo pausua materiala erosi eta prestatzea izan zen, eta gero esperimendatzeko prozedu-

ra. Azkenean erabaki genuen hiru landare hazi mota haztea: belarra, hirusta eta dilistak. Gero bi substantzia hartu genituen: zigarrokinek eta ibuprofenoa. Jakin nahi genuen bi substantzia horiek nola eragiten zuten ingurumenean.

**Izadi:** Laborategian, “petri” izena duten gauza batzuk daude, eta horrekin ura kutsatuta geneukan zigarrokinek edo ibuprofenoen kontzentrazio desberdinekin. Hori “agarraga” substantziarekin nahasi genuen (algetatik datorren substantzia bat da hau). Beranduago, sortu genuen nahasketatik, prozesu baten ondoren ateratzen ziren landareak aztertzeko genituen kontzentrazioaren arabera, banan-banan.

**Isabela:** Laburbilduz, ura hartzea

“Niretzako, egin genuen lan guztiaren ondoren, amaitzea izan da sari handiena”

Izadi Balda

eta substantzia hauekin kutsatzea izan zen. Demagun, kasu honetan, lurrera botatzen ditugun ibuprofenoa eta zigarrokinek. Horiek, likido disoluzio bat sortu genuen, bertan hazi batzuk jarri eta haziak nola hazten diren ikusi genuen. Horrela jakin genuen hurrengo egunetan ea gutxiago, gehiago, edo zuzenean ez ziren hazi. Hori aztertzea izan zen gure esperimendua.

### Nolako emaitzak lortu zenituzten? Zein izan zen harrigarriena?

**Izadi:** Emaitza bitxiak izan ziren. Ibuprofenoetan, adibidez, ikusi genuen haziak ez zirela behar bezala hazi, asko kostatu zitzaien. Adibide oso ona iruditu zitzaigun hirusta, emaitzarik argienak eman dizkiguna izan baita. Belarrarekin arazo bat izan dugu: denbora gehiago eduki genuen ernetzeko, gainean egon ginen erabat, eta ez zen oso ongi ateratu. Gero dilista, handia denez, erraz hazi zen. Izan ere, barruan babes gehiago ditu, eta, ondorioz, ez zen hainbeste hondatu ibuprofenoarekin eta tabakoarekin. Orokorrean, ibuprofenoarekin gutxiago hazi dira.

**Isabela:** 50 zigarrokin nahastu genituen 500 mililitrotan, baina ez zuten

**IORTIA** CLÍNICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785  
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia  
Estetika  
Presoterapia  
Podologia  
Laser-depilazioa eta  
depilazio elektrikoa  
Dietista-nutrizionista  
Mikropigmentazioa ezpainen  
Mikroblading bekainetan



Maddi Etxarri eta Izadi Balda Elhuyar zientzia azokako sariarekin. Argazkia: Isabela Apezetxea.

eragin handirik izan. Belarraren kasuan, ez genituen oso emaitza onak lortu, eta dilistaren kasuan, Isabelak esan duen bezala, handiagoa denez emaitzak antzekoak izan ziren. Horretan emaitzak ez ziren hain zuzenak edo egokiak izan.

**Izadi:** Harrigarriena hirustarena izan zen; eragina hazi honetan ikusi genuen. Gainera, izugarria izan zen nola tabako kopurua txikia izan ez arren, ez ziela eragin landatutako hazie, eta nik uste nuen horrek kalte handia egingo ziela haziei.

Azkenean, badakigu tabako barruan toxikoak diren substantziak daudela, eta bitxia iruditu zitzaidan.

**Isabela:** Bai. Bestalde, ibuprofenoaren kasua miwesgarria izan zen: ondoak eta bakteriak ez ziren sortu, azkenean ibuprofenoak hori galarazi baitzuen.

**Zer erronka izan zenituzten ikerketa egiten?**

**Izadi:** Erronka handiena denbora falta izan zen; urtarrean hasi ginen esperimentazioarekin, zer egin pentsatzen, informazioa bilatzen, eta apirilerako denak prest egon behar zuten, lanak bidalita. Guk astean bi ordu besterik ez ditugu izan Laborategi Teknikak egiteko. Bi ordu horiek plaka eta haziak prestatzen igarotzen genituen, eta jolas-orduan laborategira joaten ginen, landareak nola hazten ziren ikusteko. Irakasle batzuei ere, atsedean orduak kendu genizkien, denbora behar genuelako. Arazo handiena denbora falta izan da.

**Isabela:** Ainhoa gure irakaslearen laguntza aipagarria izan da, oso ona.

*“Prozesu baten ondoren ateratzen ziren landareak aztertzen genituen, kontzentrazioaren arabera”*

Izadi Balda

*“Zerbait sakonagoa egiteko, denbora oso beharrezkoa da, eta beti ez dira bilatutako emaitzak lortzen”*

Isabela Apezetxea

**Izadi:** Bai, guk proiektu honetan gure denbora libre eskaini behar izan dugu, baina berak ere bai. Bere aldetik lan handia egin du.

**Zer sentimendu izan zenituzten zuen proiektua aurkeztuta Elhuyar Zientzia Azokan?**

**Izadi:** Azkenean guk ez genuen ezer espero, proiektuarekin aurrera jarraitu genuen, baina ezerren esperoan. Bilbon geundela, esan ziguten seietarako ez bagenuen mezurik jasotzen ez genuela ezer irabazi. Pentsatzen ari ginela, bat-batean deitu ziguten eta ez genuen ezer espero.

**Isabela:** Esperientzia ikasgai honen parte delako egin genuen, ez genuen inoiz pentsatu gure helburua irabaztea zela. Bat-batean jaso genuen mezua, eta hasieran uste genuen gezurra zela; izan ere, beste hainbat sari txiki daude, “sari bereziak” deitzen direnak. Baina berehala adierazi ziguten sari nagusia irabazi genuela.

**Zer izan da zuentzat saria irabaztea eta Portugalgo Zientzia Azokara joateko hautatuak izatea?**

**Isabela:** Banekien eskola txiki bateko ikasleak ginela, baina ikusi nuen horrek ez zuela axola. Agian beste arlo batzuetan bai, baina honetan interesaz lan eginda eta orduak horretan emanda, beti dago aukera irabazteko.

**Izadi:** Oso eskertua sentitzen naizela lortu dugunarekin, baina jakinda batzuetan ezin dela irabazi eta esperientzia bizitzea dela garrantzitsua.

**Zer ikasi zenuten azokan parte hartu zuten beste proiektuetatik?**

**Isabela:** Ez genituen asko ikusi beste proiektuak, bueno, nik behintzat. Baina bai ikusi genituela egoera eta giroa. Oso jende prestatua zegoela ikusi nuen, beste esperimentu oso interesgarriekin. Gure egunerokoan egiten ditugun gauzak ikerketa batean aplikatzea oso interesgarria iruditzen zait.

**Izadi:** Azokan egoten gauza bera behin eta berriro azaldu genuen, baina giroa oso ona zen. Ni gustura sentitu nintzen.

**Zuen ustez, zer eskaintzen die zuen ikerketak zientzia-komunitari eta gizarteari?**

**Isabela:** Bueno, uste dut jende askok agian ez duela ulertzen azaldu duguna, baina orokorrean izango litzatekeela kontuan hartzeko lehenengo zenbaterako erraztasunarekin hartzen dugun ibuprofenoa; egia da ematen duela kontzentrazio txikia daukala, baina asko hartuta gorputzean pilatzen da. Beraz, mina daukagunean ez da beti egokiena ibuprofeno bat hartzea. Tabakoaren kasuan, ez da ezer berria, denak dakigu zer dakarren, baina behintzat berriro ere kontzientziatzea ez dela osasungarria.

**Izadi:** Nire ustez, gure ikerketak adierazten duela zientzia-munduak zer alderdi on eskaintzen dizkigun.

**Zein edo zeintzuk izan dira zuen laguntzaileak eta aholkulari nagusiak prozesu honetan?**

**Izadi:** Ainhoa, gure irakaslea aldiro egon da jendearekin harremanetan



Josu Iribarren, Unax Navascues, Izadi Balda, Isabela Apezetxea, Maddi Etxarri eta Nahiane Ijurko, Elhuyar Zientzia Azokan. Argazkia: Isabela Apezetxea.

eta guri laguntzen. Gainera, ospitale bateko erizain batekin egon ginen eta asko lagundu zigun, ideia desberdinak eman zizkigun. Baina esan beharra dugu Ainhoa izan dela dena aurrera eramane duena.

**Zein izan da prozesu honetako unerik atsegina?**

**Isabela:** Hasierako emaitzak ez ziren onak izan eta pentsatzen nuen: “Jo, non sartu garen... Zergatik egin behar dugu hau?”. Baina azkenean, denen artean lana bukatzea eta bidali ahal izatea ederra izan zen. Izan ere, ez da bakarrik esperimentua egitea: bideo bat egin behar genuen, poster bat, ekintza desberdinak. Justu azterketekin batera tokatu zitzaigun eta uste nuen ez ginela iritsiko, baina azkenean bukatzea eta bidaltzea oso atsegina izan zen, dena bukatu genuela jakitea.

**Izadi:** Niretzat, egin genuen lan guztia egin ondoren, amaitzea, hori izan da sari handiena. Egia da irabaztea

*“Zientzia-munduarekin zerikusia duen irakaskuntzan aritza gustatuko litzaidake”*

Izadi Balda

ere atsegina dela, baina bat nator Isabelarekin.

**Etorkizunean zientzia-munduko lanetan ikusten duzu zuen burua?**

**Isabela:** Niri zientzia-munduan lan egitea gustatuko litzaidake, baina ez ikerketa-munduan. Guk egin dugun esperimentua oso ximplea da, baina zerbait sakonagoa egiteko, denbora oso beharrezkoa da eta beti ez dira bilatutako emaitzak lortzen, eta hori pixka bat desesperagarria iruditzen zait. Baina bai, osasun-munduan lan egitea gustatuko litzaidake.

**Izadi:** Nik uste dut ikerketa-mundua pixka bat frustragarria dela, guk izan dugun esperientzia kontuan izanda. Hortaz, ikerketa-munduan ez, baina

zientzia-munduarekin zerikusia duen irakaskuntzan aritza gustatuko litzaidake, edo horrelako zerbaitetan.

**Zer aholku emango zeniekete ikerketa zientifikoko proiektuetan parte hartzea pentsatzen ari diren beste ikasle batzuei?**

**Izadi:** Nik animatuko nituzke, ez bakarrik saria irabazteko, baizik eta prozesua oso polita delako. Beste lekuetako zientzia-ikerketak ezagutzeko aukera ona da, asko ikasten da prozesu honekin, eta ikerketa zientifikoa zer den ikusteko aukera ona da.

**Isabela:** Nik esango nuke bidea batzuetan aspergarria izan daitekeela, baina dena ezin da ona izan, emaitza txarrekin ere ondorio bat daukate. Guk zorte handia izan dugu saria irabazten, baina beti ez da horrela izaten. Bilbo ezagutzeko, gauza berriak ikusteko eta egun ederra igarotzeko merezi du parte hartzeak.

**Zerbait gehiago aipatu nahi duzue?**

**Izadi:** Bai, gure klasean beste proiektu interesgarri bat zegoen: haiek isolamenduaren lana egin zuten: “Material ezberdinen isolamendu termikoa”. Proiektua aurkeztera bi joan ziren, baina taldean lau mutil zeuden, horien artean Lekunberriko bi: Josu Iribarren eta Unax Navascues. Haiek ez zuten saria lortu, baina prozesuan guk adina lan egin zuten.

**Isabela:** Ikusi dugu ikasturte osoan guk bezainbesteko lana egin dutela, eta oso esperimentu interesgarria egin zuten.

**MAITE HARATEGIA**

**BERTAKO HARAGIA**

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.

Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7  
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

**German Lasarte**

**HARATEGIA**

Aralar kalea 8  
Lekunberri  
948504157

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099  
Arbe-Atailla

**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**



### ▶ KIROLDEGIKO LIBURUAK

Lekunberriko Plazaola Kirolgunean, duela gutxi liburuz betetako apal bat jarri zuten igerileku alboan. Haurrek, gazteek eta helduek bertan irakurtzeko aukera izatea da helburua. Nafarroako Gobernuaren eta Lekunberriko Udalaren laguntzaz eskainitako liburutegi txiki eta berezi honek, irakurtzearen garrantzia eta onurak oroitarazten ditu. Izan ere, edozein leku irakurtzeko egokia izan daiteke, irudimena martxan jartzeko eta une batez, pantailetatik urruntzeko.



### ▶ ABENTURA DIGITALA

Ekainaren 17tik 21era Android telefono mugikorren erabilerarako ikastaroa egin zen Mimukaien, Leitzan. Doinkuntzak eta Oinarrizko Erabilkortasun digitalak erabiltzen ikasteko, horien artean: telefono mugikorraren erabilera segurua, argazkiak eta hodeiko memoria, nabegazioa eta aplikazioak eta Whatsappa. Ekainaren 17tik 28ra, nabegazio seguruari buruzko ikastaroa eskaini zuten ere, hainbat gai desberdinen artean, eta ekainaren 24tik 28ra Internet bidez komunikatu eta konektatzeko ikastaroa. Denak doakoak izan ziren, eskualdeko udalek Mimukaien bitartez eskaini zutena.



### ▶ EUSKARAZ BAI!

Ekainaren 7an ikasturtea amaitzeko, inguruko haurrek bolerara irteera egin zuten, eskualdeko Euskara Batzordea eta Paumaren eskutik. Ibarberri eskolatik irten ziren Iruñera, eta arratsalde dibertigarria igaro zuten LH1. - LH6. mailako gazteek.



### ▶ DEFENTSA PERTSONALA

Emakumeentzako Defentsa Pertsonalari buruzko bi ikastaro egin ziren ekainaren 11n eta 18an Plazaola Kirolgunean (Lekunberri). Parte-hartzaileek defentsa pertsonalaren oinarriak ikasi zituzten, hala nola, erasotzaileen aurkako jarrera eta erantzuteko teknika eraginkorrak. Ikastaroan parte hartu zuten emakumeen harrera oso ona izan zen eta ikasi zuten guztiarekin oso eskertuak daudela diote.

### NATURA ETA ZALDIAK

Ekainaren 25ean, Bittor Salvatierraren eskutik, udaleku zoragarria egin zen Intzan, Perunea Baserrian, natura eta zaldien artean. Bertara 7-12 urte bitarteko haurrek parte hartu zuten eta osotara zazpi lagun elkartu ziren. Zaldiei buruzko bitxikeriak eta ezaugarri bereziak aztertu zituzten. Ondoren, zaldiekin jostatu eta hamaiketako jaan bezain laster zaldi gainera igo eta pistan itzuli bat eman zuten, animalia harrigarri hauekin lehenengo konexioa esperimintatuz. Hurrengo ikastaroa uztailaren 8tik 12ra izanen da, bertako zaldien bitartez jostatu eta gozatzeko aukera.

Informazio gehiago lortzeko:  
-Webgunea: [www.equinoaukera.com](http://www.equinoaukera.com)  
-Telefono-zenbakia: 639370645



### MAILOPEREN ALDE!

Mailoperen egoera ekonomikoa ez da ona, eta horretarako bi ekitaldi antolatuko dira aurten: lehenengoa ekainaren 9an egin zen Beteluko elizan. Bertan 150 lagun inguru elkartu ziren eta "Jon, Jaione eta seme-alabak" musika taldearen kontzertu zoragarria izan zela diote. Bigarrena udazkenean egingen da, Larraun-Lekunberri, bazkideak zehazteke daude. Ekitaldi jakin horiez gain, Mailopek nagusia hain justu hori da, bazkideak lortzea eta hala komunitatea indartzea. Mailope herritik eta herriarentzat egiten jarrai dezagun!

Harpidetu nahi baduzu, bidali zure datuak:  
-webgunea: <https://mailope.eus/>  
-Telefono-zenbakia: 638652339  
-Posta elektronikoa: [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net)



●● Aiora Irastorza (Lekunberri), Aitor Etxarri (Oderitz) eta Idoia Garmendia (Betelu)

## Euskara indartzeko, udako ludotekak

*Udako ludotekak erreferente bihurtu dira gure inguruan haurren artean euskararen erabilera sustatzeko. Dindaia Fundazioak antolatzen dituen udaleku hauek Lekunberri eta Betelun egiten dira, eta, horietan, etxeko txikienek euskaraz aritzeko gaitasuna indartzen dute, hainbat jardueraz gozatzen duten bitartean.*



Aiora Irastorza eta Aitor Etxarri, Lekunberriko udako ludotekako begiraleak.

*“Eguneroko hiztegia ikasi eta nahi dutelako erabiltzen dute”*

Aiora Irastorza

tzen zitzaidala ikusi nuen. Lekunberri udako ludoteka bat zegoela jakin, eta nola parte hartu galdetu nuen. Horrela hasi nintzen bertan lanean. Hau nire bigarren urtea da”.

Aiorak, berriz, 18 urte zituela lortu zuen begirale titulua, eta 2019tik egon da kanpamentuetan lanean. “Txikienekin lan egiteko aukera eskaini zidaten, eta harrezkero udaro aritu naiz lanean. Bosgarren urtea dut hau”, adierazi du.

Bientzat, ludotekaren helburu nagusiak bi dira: familiei zerbitzua eskaintzea eta euskararen erabilera sustatzea. Aiorak horixe nabarmendu du: “Haurrek taldean jolasteko eta jarduerak egiteko aukera paregabea da, eta hori batzuetan ez da hain ohikoa eskolatik kanpo, batez ere udan, euskara hainbeste entzuten ez denean”. Ludotekako jarduerak askotarikoak dira eta klimaren arabera, Aitorrek azaldu duenez: “Dindaia Fundazioak plangintza bat ematen digu, baina guk hoberen iruditzen zaigun moduan egokitzen dugu. Askotan, eguraldiaren arabera planifikatzen ditugu eguneko ekintzak, baldintzen arabera”.

Euskara ekintzetan ezartzea ere erronka bat da. Aiorak adierazi du

*“Jolasten dibertitzen diren bitartean euskara ikasten dute udako ludotekan”*

Aitor Etxarri

pegiaren berri eman dute. Aitorrek Irakasle ikasketak amaitu ditu jada eta proiektuan nola inplikatu zen azaldu du: “Unibertsitatean praktikak egin ondoren, haurrekin lan egitea gusta-

Uda garaian haurrek denbora libre asko dute. Nolabait aspertu ez daitezten eta bide batez harremanak sendotu ditzaten antolatzen dira udalekuak. Bertan ikasten dute euskaraz aritzea zer garrantzitsua den haien egunerokorako, elkarbizitza-rako...Udaleku horietan begiraleen lana ezinbestekoa da, nolabait haurren erreferente bilakatzen direlako.

### Lekunberri, udara euskaraz

Aitor Etxarri eta Aiora Irastorza begiraleek beren esperientziaren eta ikus-

*“Harrigarria da bederatzi eta bost urteko haurrek elkarrekin jolastu eta elkarrengandik ikasi dezaketela ikustea, hori oso polita da”*

Aitor Etxarri



Umeak jolastan Lekunberriko Ibarberri eskolako patioan. Argazkia: Aiora Irastorza..



Lekunberriko Ludotekako haurrak zaldiekin txangoan. Argazkia: Aiora Irastorza.

hizkuntzaren erabilera haurren familia-ingurunearen mende dagoela: “Familia euskaldunetakoek ez dute arazorik, baina familia erdaldunetako haurrei zailagoa iruditzen zaie hizkuntza aldaketa. Hala ere, haurrak taldean daudenean, errazagoa da euskara erabiltzea”.

Ingurune ludiko batean euskara ikasteak dakartzan onurei dagokienez, Aitor eta Aiora bat datoz esatean horrek hizkuntzaren erabilera normalizatzen duela eguneroko bizitzan, bere errutinaren zati bat eginez eta ez bakarrik zerbitu akademikoak. “Eguneroko hiztegia ikasten dute eta nahi dutelako erabiltzen dute”, dio Aiorak.

Kanpamentu hauetako parte-hartzea ere aldatu egin da denborarekin, Aiorak esan duenez: “Aurten behera egin du. COVID 19-aren on-

*“Jarduera bat gidatzen ari ez garenean, euskararen erabilera galdu egiten da”*

Aitor Etxarri

doren, gorakada esanguratsua ikusi genuen, 50 haur baino gehiagorekin txanda bakarrean 2021-2022an. Baina aurten jaitsi egin da”. Aitorrek gaineratu du haur nagusiek kirol-kanpamentuetara joateko joera dutela, eta horrek ludotekako parte-hartzaileen kopurua murrizten duela.

Bi begiraleek uste dute beren lanaren gauzarik atsegingarriena haurre-

kin sortzen duten harremana dela. “Harrigarria da bederatzi eta bost urteko haurrek elkarrekin jolastu eta elkarrengandik ikasi dezaketela ikustea, hori oso polita da”, dio Aitorrek. Gainera, Aiorak azpimarratu du gurasoek esker ona adierazi ohi dutela, batez ere udaren amaieran.

### Betelu, bizikidetzaren eredu

Betelun, dinamika antzekoa da, baina desberdintasun esanguratsu batzuekin. Idoia Garmendia begirale beternoetako batek azaldu duenez, Oihuka izeneko kanpamentuak gazte talde baten ekimenez hasi ziren. “DBHko laugarren mailan hasi ginen, eta arrakasta ikusita, udalak Dindaiarekin lankidetzan aritzea erabaki zuen, eta guk parte hartzen jarraitu genuen. Seigarren urtea dut hau”, dio.





Idoia Garmendia, Beteluko udal ludotekako begiralea. Argazkia: Idoia Garmendia.



Beteluko Udalekuetako haurrak eskulanak egiten. Argazkia: Idoia Garmendia.



Beteluko Udalekuetako haurrak eta Idoia Garmendia (Begiralea) gela barruan. Argazkia: Idoia Garmendia.

Lekunberrin ez bezala, Betelun ez diote hainbeste erreparatzen euskararen erabilera sustatzeari, umeen artean ohiko hizkuntza baita. Hala ere, Idoiak dio familia etorkinetako haur batzuek gaztelaniaz hitz egiteko joera dutela, baina euskaraz ulertzen dutela eta erabiltzera animatzen dituztela.

Beteluko jarduerak askotarikoak dira, eta haurren arteko lankidetzak sustatzea dute helburu. "Eskulanak egiten ditugu goizean, eta jolas kooperatiboak kanpora ateratzen garenean", azaldu du Idoiak. Taldean kohesio onari eusteko gakoa, haren ustez, haur guztiak elkarren artean errespetatzen direla ziurtatzea eta denak integratuak sentitzea da.

**"Betelun ez zaio horrenbeste erreparatzen euskaraz ari zeari haurren artean ohiko hizkuntza baita"**

Idoia Garmendia

Beteluko parte-hartzea handitu egin da urteekin: 12 haur izatetik 20 eta 30 bitarte izatera pasatu da. Horren barruan sartzen dira udan kanpotik etortzen diren haurrak, eta hori positibotzat jotzen du Idoiak. "Udalekua euskaraz bada ere, kanpotik etortzen diren haurrek parte hartu nahi dute,

eta hori oso ona da", esan du. Gurasoek ere eskerrak ematen dizkiete denboraldi bakoitzaren amaieran, inkestak bidez, eta urtero adierazten dute zer gustatu zaien eta zer hobetu daitekeen. "Gurasoek beti eskertzen digute egiten dugun lana, eta haurrak oso pozik joaten dira etxera", adierazi du Idoiak.

Lekunberriko eta Beteluko udako ludotekak ez dira bakarrik euskara ikasi eta euskaraz hitz egiteko gune bat; gaitasun sozialak garatzeko eta haurren artean lotura esanguratsuek sortzeko abagune bat ere badira. Begiraleek eta parte-hartzaileek udaren euskararen erabilera aberasten dute beren lanarekin, eta komunitate eskaldunagoa bultzatzen dute.

## Zorionak, Printza!

Ekainaren 22an, Printzak bost urte bete zituen. Denbora igaro ahala, kultura eta elkarlana bermatzen dituen gune autogestionatu oparoa loratu da, maitasuna eta bizikidetzak irizpide dituen eremua. Egun berezi hau ospatzeko, Aroa Arrizubieta eta Amets Arzallusekin bertso bazkari ederra egin zen. Iluntzean, Ibil Bedi eta J-Martina musika taldeen kontzertuak gauzatu ziren, eta amaitzeko DJ Mr. Worldwidek. Egun hartaz gozatzeko, sarrera guztiak agortu ziren, 150 lagun bertaratu ziren kontzertuak ikustera. Askok diote magia, bertso eta musika zoragarriak betetako egun berezia eta hunkigarria izan zela.



Aroa Arrizubieta eta Amets Arzallus bertso bazkarian. Argazkia: Printza.



Ibil Bedi musika taldearen kontzertua Printzan



J-Martina musika taldearen kontzertua Printzan



Martillo Txiki ikasturte amaiera, astearteko taldea. Argazkia: Igor de Castro.



Martillo Txiki ikasturte amaiera, asteazkeneko taldea. Argazkia: Igor de Castro.

## Martillo Txiki ikasturte bukaera

Martillo Txiki, 2011. urtean martxan hasi zen proiektu bat da. Musika ikasiz gozaten duten ikasle mordoak osatzen dute Perkusio Eskola. Igor de Castro da bertako musika irakaslea. Haurrentzako zein helduentzako eskola da, eta bertan, denek zerbait ikasi eta irakasten dute. Elkar partekatzea da helburu nagusia. Hala ere, beste hainbat helburu ere lantzen dira ikasketak prozesuan, hala nola metodologikoak: musika irakurri, idatzi, sortu, interpretatu, eritmoak menderatzea, gorputzaren independentzia lortzea, teknika hobetzea... Ekainaren 18 eta 19an, ikasturte amaiera ospatzeko, bertako perkusio joleek ikasitako guztia erakutsi zuten. Gabari Gune Irekian elkartu ziren bi egunetan, eta bizilagun ugari bertaratu ziren. Queen, AC-DC, Metalica, Bulego, eta horrelako musika taldeen bertso desberdinak entzuteko aukera paregabea izan zen. Eguna amaitzeko, merendola goxo bat egin zuten.

**Lagunasesoria S.L.**  
Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
lagunasesoria@terra.es

**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, errokilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara

**BACALAOSELKANO S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
bacalaoselkano@jet.es  
www.bacalaoselkano.com.

## Beteluko San Pedro jaiak 2024

San Pedro jaiak ospatu zituzten beteluek ekainaren 26tik uztailaren 30era. Euria egin arren, ateri eutsi zion une gehienetan eta giro ederrean joan ziren jaiak. Kontzertuak, kirola, dantzak, elektrotzaranga, txokoladak, jolasak, anaien arteko herri apustua... Gustu guztietarako egitaraua. Bertakoen giroa eta herriarren parte-hartzea aipagarria izan zen.



Herritarak plazan dantzaten. Argazkia: Ane Ubegun



Herri bazkaria. Argazkia: Ane Ubegun



Erraldoaik Betelun. Argazkia: Ane Ubegun



Dantzariak herriko plazan. Argazkia: Ane Ubegun

## Larraungo egun zoragarria!

Larraungo Eguna ospatu zen ekainaren 15ean Baraibarren, hurrenez hurren. Hasteko, Ttutturre mendi elkartearekin ibilaldia egin zen: Baraibartik hasi ziren mendizale trebeak, ondoren Iribas, Alli, Astitz zeharkatu eta berriro ere Baraibarrera itzuli ziren. Ondoren pilota partiduak, eta gero, Tirikitraukiren dantza taldearen emanaldia ederra egin zen. Geroago, musika eskolako animazioak giroa alaitu zuen eta ondoren, denen artean Larraungo ingurutxoa, zehazki Uitzikoa ingurutxoaren zati batzuk dantzatu zituzten. Herri bazkaria ere egin zen, Garazi Navarro eta Julio Soto bertso-lariek, eta bertan, German Lasarte omendu zuten. Tripak bete ondoren, hurrek eskulanak egin eta Zirika Zirkus-ean parte-hartzeko aukera paregabea izan zuten. Geroago, Gazte zein helduentzat bingo musikatua egin zen eta gero Trikitiens taldearen kontzertu itzela. Iluntzean, DJ Iñigo Etxenikeren erritmo bizian amaitu zen eguna.



Tirikitrauki dantza taldearen emanaldia Baraibarko frontoian. Argazkia: Diario de Noticias



Abeslariak Baraibarren. Argazkia: Diario de Noticias



Larraungo ingurutxoa dantzaten. Argazkia: Beatriz Buldain



Herri bazkaria Baraibarko frontoian



German Lasarte omendua. Argazkia: Beatriz Buldain



Zirika zirkus. Argazkia: Beatriz Buldain



Trikitiens kontzertua



**Albaitaritza**  
baserriarren  
zerbitzura

Alaborro Ind., 31860 Iruztzun  
www.albaitaritza.com · 948 500 343





**TALLERES GOÑI**  
CHAPA Y PINTURA



- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

## San Joan jaiak inguruan!

Ekainaren 22tik 24ra Lekunberrin sanjoanak ospatu ziren. Hainbat ekitaldik herritarrak eta bisitariak bildu zituen, adin guztietarako jardueraz betetako jai giroan. Ospakizuna ostiral arratsaldean hasi zen, Garagardo azokarekin. Larunbatean ordea, eguraldi txarra zela eta, erraldoi eta kilikien konpartsa bertan behera gelditu zen, baina hala ere, festa giroa ez zen eten eta ongi etorria egin zitzairen 2023an erroldatutako bizilagun berriei. Geroago, emakumezkoen pala partiduak egin ziren. Beranduago, Martillo Txikik antolatutako batukada taldeko gazteek kalez kale jo zuten, danborren erritmoan su bizia inguratu eta euriarekin dantzan amaitu arte, San Joan su tradizionalak zerua argitu eta urteko gau laburrena argitzen zuen birtartean.

Igande goiza txistulari taldearekin hasi zen, ekitaldiz beteriko egun baten hasiera iragarri. Meza ostean, jubilatuen bazkaria eta herri bazkaria egin ziren. Bizilagunek platerak eta barreak partekatu zituzten. Arratsaldea haur-jolasak eta tailerrek amaitu zen.

Larraunen, Araitzen eta Betelun ere sua piztu zuten, eta antzeko ospakizunak egin ziren, eskualde osoko kultura aberatsa eta giro herrikoa nabarmentzeko eta tradizioak eta jai espiritua bizirik mantentzeko.



Martillo Txikik antolatutako gazteen batukada San Joan suaren inguruan. Argazkia: Igor de Castro



Sanjoanetako bazkaria. Argazkia: Lekunberriko Udala



Jubilatu bazkaria Ayestaran-en. Argazkia: Lekunberriko Udala



Etxiariko sua. Ana Telletxea




Erroldatu berriei ongi etorria. Argazkia: Lekunberriko Udala



Emakumeen pala partiduak. Argazkia: Lekunberriko Udala

## Europako Parlamenturako hauteskundeak 2024

Ekainaren 9an egin zen 2024ko Europako Parlamenturako hauteskundee-tako bozketa. Hona hemen gure inguruan izandako emaitzak:



## “Harrotasunez jarraituko dugu” - Lorena Arangoa

Ekainaren 28an, LGTBIQ+ eskubideen aldeko egunean, elkarretaratzea egin zen Larraungo Udaletxean. Beranduago, euriaren ondorioz, Jazinta, “LA POTRA” antzezlanak Lekunberriko Ibarberri Eskola Publikoko frontoian egin zen, Lorena Arangoaren eskutik. 60 lagun baino gehiago elkartu ziren eta farre eta algarra ugari entzun ziren iluntzean.



LGTBIQ+ elkarretaratzea Larraungo Udaletxean



Lorena Arangoa antzeztzen



Jazinta, “LA POTRA” antzezlanak

## Koldobikaren heriotzan

Igandea da, oheratzeko ordua. Telefonoa itzali aurretik, begirada bat ematen diot eta Iñigo lagunaren whatsapp aurkitzen dut zain. Oso gutxitan idazten diogut elkarri, urtebetetzetan eta eguberrian soilik. Harriduraz eta kuriositatez ireki dut whatsapp eta hantxe irakurri: gaur, bihotzekoak jota, Koldobika hil egin da. Oso azkar etorri da nire erreakzioa, kontrolaezina. Oihu egiten dut. Ez dakit zer esaten dudan baina oihu horretan batzen dira istant batean harridura, ezin sinestea eta amorrua. Nire bikotekideak galdetzen dit ea zer gertatzen den, zergatik oihu mindu hori. Azaltzen diot gertatutakoa eta nor izan den lagun hau. Izan ere, gaztetan lagun handiak izan ginen. Elkarrekin mendiak igo, eskalatu, bidaiaren bat egin eta neskekin ligatu.

Astelehena. Gaua gaizki pasa dut, oso triste, oso nahastua eta oso bigun. Oroitzapenak pilatu egiten zaizkit. Negar egiteko gogo ez da begietaraino iristen, agian lotsagatik, baina lur jota nago. Telefono deiak. Iñigo eta senideekin, besteak beste, hitz egiten dut. Guztiok harriduta eta triste gaude. Deskubritzen dut lagun komuna genuenekin hitz egiteak lagundu eta lasaitzen nauela, bera beste bidetik edo ezagutu ez zutenekin konpartitzeak baino areago. Burura, behin eta berriz etortzen zait kanta. Non hago, zer menditan, Alkizako laguna? Mendi hegaletan gora, oroitzapen den gerera, ihesitan joan hintzena!



# Nire posturarik gustokoena?

## *Presiorik ez.*



**Nafarroan...**  
**Gozatu, partekatu eta errespetatu**



#PrebentzioNeurriakErabili  
#PresiorikEtaGezurrikEz  
#EtiketarikGabekoMaitasuna

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



●● Julen Huarte (Albaitaritzako gerentea)

## “Gure filosofia beti izan da ezagutza partekatzea, abeltzaina lehiakorragoa izan dadin”

**Julen, Albaitaritzako gerentea da Irurtzunen. 2007an hasi zen bertan lanean. Enpresaren bilakaera eta albaitaritzaren sektoreko egokitzapena nolakoa izan den ikusi du. Elkarriketa honetan, Albaitaritzaren historia eta bertan eskaintzen dituzten zerbitzu berritzaileak azaldu ditu.**

**Albaitaritzaren sortu zenetik, nolakoa izan da bilakaeran eta hedapenean?** 1983an, Elizondon sortu zuten enpresa Peio Astiz eta Jose Manuel Azurmendi albaitariek. Geroago, 1987an, Irurtzunera joan ziren. Elizondon jada denda bat zutenez, Irurtzunen beste bat irekitzea erabaki zuten. Ondoren, albaitaritzaren zerbitzua zabaldu egin zen, eta bi jarduerak egin ziren: albaitaritzaren zerbitzua eta merkataritzaren zerbitzua. 1992an, albaitari eta bazkide gehiago sartu ziren, eta enpresa hazi zen. 2000. urtean, lege-aldaketaren ondorioz, albaitaritzaren zerbitzua eta merkataritzaren enpresa banatu ziren. Gaur egun, lau enpresa dira: Albaikide, albaitaritzaren zerbitzuak eskaintzen dituena; Albaitaritzaren Genetikak, genetikaren ardatzen dena; Sendagaiak, sendagaien enpresa; eta Albaitaritzaren Gure jatorrizko izena, sendagaiak eta genetikaren barne hartzen ez dituzten produktu komertzialak eskaintzen dituena.

**Zein dira gaur egun eskaintzen dituzten zerbitzu berritzaileak?** Adibidez, albaitaritzaren zerbitzuan, ugalketa-arloan espezializatu gara beti, eta horrek laguntza handia eman die abeltzainei. Urte asko daramatzagu genetikarekin lanean, adibidez, hazi sexatuarekin. Esne-behietan, emeak jaiotzen direla ziurtatzea oso garrantzitsua da; izan ere, ganadu mota horretan funtsezkoa da emeak lortzea esnea ekoizteko. Balio handiko produktuekin egiten dugu lan, izan ere, esnearen kalitatea hobetzea eta gaixotasunen prebentzioa abian jartzea, oso garrantzitsua da guretzat.


**Zuen enpresan dituzten adituen aniztasunak nola laguntzen du?** Azkenean, teknikari horiekin zerbitzuaren kalitatea hobetzen dugu



Julen Huarte



Sendagaiak, Irurtzunen dagoen denda barrutik



Albaitaritzaren Gure jatorrizko izena, Irurtzunen dagoen denda barrutik

**“Urte asko daramatzagu genetikarekin lanean, adibidez, hazi sexatuarekin”**

**“Produktu zoosanitarioak eskaintzen ditugu, medikamentuak barne”**

eta abeltzainei eraginkorragoak izaten laguntzen diegu. Albaitariek, bioteknologoekin eta beste aditu batzuekin, balio erantsia eskaintzen saiatzen gara, ez bakarrik produktua salduz, baita aholkularitza eta ezagutzak partekatuz. Gure filosofia beti izan da ezagutza partekatzea, abeltzaina lehiakorragoa izan dadin.

**Zer produktu mota aurkitu daitezke zuen bi dendetan?** Bi denda propio ditugu, baina franki-

ziak ere baditugu Gipuzkoan eta beste leku batzuetan. Batez ere, produktu zoosanitarioak eskaintzen ditugu, medikamentuak barne. Laborategiko langileak farmako hoberenak bilatzeaz arduratzen dira. Europan, antibiotikoen erabilera murriztu nahi da, gizakiengan sor dezaketen erresistentzia dela eta. Proba asko egiten dira, bai esnean, bai haragian, antibiotikoekiko erresistentzia saihesteko. Gainera, produktu eskusibo ugari eskaintzen ditugu, hala nola: etxolak, txahalentzako eki-poak, abeltzainentzako botak eta zaldientzako produktuak. Abeltzainentzaren produktu beharrezkoenak izaten saiatzen gara beti.

**Nolakoa izango da albaitaritzaren etorkizuna zure ustez?** Berritzen jarraituko dugu, merkatuaren eskaera eta erregulazioetara egokitzeko gara, gure bezeroei beti onena eskaintzeko.

# “Kirol Udalekuari esker, haurren arteko harremanak sendotu egiten dira”

**Lekunberriko Kirol Udalekua ezin hobea da kirolaren bidez gozatu eta euskaraz hitz egiteko. Bertan parte hartzen duten haurrek askotariko jarduerak praktikatzeko aukera dute. Sozializazioa, talde-lana eta kirolarekiko pasioa sustatzen dituztela azpimarratu du Bingen Beguiristainek, Kirol Udalekuko begiraleak.**



Bingen Beguiristain, Kirol Udalekuko begiralea.

## Nolatan animatu zinen kirol udalekuan parte hartzera?

Kiroldegian hasi nintzen lanean, eta, aurreko urtean, Amaia Landa bertako kudeatzaileak animatu ninduen Kirol Udalekuan parte hartzeko. Jolasei eta kirolari buruzko ikasketak eginda neuzkanez, dudarik gabe animatu nintzen. laz oso gustura aritu nintzen, berriro ere parte hartzeko aukera izan dut.

## Zer kirol mota egiten dituzue, eta, zure ustez, zein da haurren jarduerarik gogokoena?

Denetarik egiten dugu, ez dugu ezer berezirik egiten. Kirol guztiak biltzea gustatzen zaigu: acrosport, futbol, pilota, etab. Ahal ditugun kirol guztiak egiten saiatzen gara. Umeen gustukoenak taldekako proba jolasak dira. Zerbait berezia eskaintzen duten jolasak asko gustatzen zaizkie: jolas kooperatiboak, altxor bilaketa, etab.

Binakako jolas bat denean agian ez zaie hainbeste gustatzen, baina de-

nek batera parte hartzen dutenean gustura jolasten dira.

## Plangintza bat ezartzen duzue begiraleek Kirol Udalekuarekin hasi baino lehen?

Bai. Udalekuak hasi baino lehen gelditzen gara plangintza bat egiteko; aurten, adibidez, Olatz Iribarren eta biok gaude begirale gisa, eta bion artean antolatu dugu. Hiru aste dira, astelehenetik ostegunera plangintza bat egiten dugu eta egun bakoitzeko ekintza desberdinak antolatzen ditugu. Gainera, ostiraletan sorpresa

txiki bat antolatzen dugu, “Egun Berezia” deitzen diogu: taldekako probak, eskalada, etab.

## Nola deskribatuko zenuke ohiko egun bat Kirol Udalekuan? Zenbat haur egoten dira bertan?

Lehenengo 30 haurrak iritea itxaitzen dugu. Batzuetan ez dira denak etortzen, baina normalean gehienak bai. la denak Lekunberrikoak izaten dira, bizikletaz edo oinez etortzen dira guregana. Denak iristen direnean Olatzek eta biok eguneroko plangintza begiratzen dugu eta saioarekin hasten gara. Lehenengo egunetan, adibidez, ezagutza jolasak egiten ditugu, taldeka banandu eta izenak ikasteko jolasak. Azkenean Lekunberri denok ezagutzen dugu elkar, baina beste lekuetako umeak ezagutzeko jolas hauek oso onak dira. Guk ere parte hartzen dugu aurkezpen jolasetan, haiek jakiteko zeintzuk garen bertako begiraleak. Hortik aurrera jolasak eta kirol desberdinak lantzen hasten gara. Gainera, udalekuak euskaraz dira, eta beti saiatzen gara jolas eta ariketa guztiak euskaraz egiten eta horri eusten baina ume batek ez badu ulertzen, saiatzen gara bereganatzen, euskaraz azaltzen eta erdaraz ere bai, horrela ikasi eta ulertu dezan. Hiru asteetan ume talde bera daukagu: ia 30 ume inguru dira, 8 eta 13 urte bitartekoak.

## Zer trebetasun ikasten dituzte umeek bertan? Zer onura eskaintzen ditu kirolak?

Umeek sozializatzen ikasteko modu polita da. Haur askok lagun-talderik ez dute adin horretan. Niretzat garrantzitsuena da kirola egitea, lagunekin egotea, eta azkenean gauza horietaz guztietaz gozatzea. Kirol Udalekuari esker haurren arteko harremanak sendotzen dira, fisikoki hobeto sentitzen dira, eta, nire ustez, kirolak eskaintzen duen guztia ona da. Talde lana eta irudimena lantzeko jolas asko egiten ditugu. Gaur egun

“Taldea lana eta irudimena lantzeko jolas asko egiten ditugu”

“Umeak ongi tratatzea eta zaintzea oso garrantzitsua da zoriotsu izateko”



Haurrak txangoan. Argazkia: Bingen Beguiristain.



Haurrak eskalatzen. Argazkia: Bingen Beguiristain.

gauza asko eginak ematen dizkigute, eta lantzen ditugun jolas gehienetan pentsatu eta burua erabili behar da: taldearekin hitz egin, denen artean erabaki bat hartu, etab.

Hiru astetan ez dute fisikoki aldaketa sakon bat lortzen, hori ez delako posible, baina nik uste saiatzen garela beraiek kirola egiten gustura sentitu daitezela. Guretzat oso garrantzitsua

da haurrek ongi pasatzea, ez asperetzea. Azken finean, ezin diegu esan hamar kilometro korrika egiteko zentzurik gabe, umei horrek ez die motibatzen. Baina altxorren bila, taldeka, petoen jolasak, sariak eta horrelakoak egiterakoan, kirola berdin egiten dute baina motibazio batekin, ongi pasatuz, lagunaren artean kirola egiten, baina modu dibertigarri batean.

## Izan duzue esperientzia esanguratsurik? Kontakizunik?

Bai. Beti oroitzen naiz udalekuaren hasieran haurrak talde txikitan ibiltzen direla, eta udaleku amaieran, ordea, denek talde bat osatzen dutela. Bukararako denak lagunak dira, ez daude lagun talde txikitan bananduta. Niretzat aldaketa hori ikustea oso polita da. Gainera, oroitzen naiz aurreko urtean bizikletan ibiltzera joan ginela eta neska bat zorabiatzen hasi zela. Une horretan, ume guztien jarrera harri-garria izan zen, denak laguntzeko prest, oso arduratsu eta talde lanean. Horrelako une zailetan taldearen harri-garria oso garrantzitsua da, eta arazoari aurre egiteko modua izugarria iruditzen zitzaidan.

## Zure ustez, zer onura ditu Kirol Udalekuan parte hartzeak?

Denetarik. Alde batetik, ni txikia nintzanean udalekuan oso gustura egoten nintzen, oso oroitzapen politak daukat. Sozializatze eta ikasteko oso garrantzitsua da; izan ere, ume askok ez dute izena ematen, ez dira etxetik ateratzen, eta udalekuan parte hartzea pertsona eta esperientzia berriak ezagutzeko aukera zoragarria da. Guraso askok esaten digute umeak oso gogotsu daudela udalekuan hasteko eta oso pozik daudela. Umeak ongi tratatzea eta zaintzea oso garrantzitsua da zoriotsu izateko.

## Beste zerbait aipatu nahi duzu?

Ausartu edo animatu ez diren haurrak parte hartzera animatu nahi ditut. Lekunberri da, kirol asko egiten dira, denetarik egiten saiatzen gara, eta denen artean jolasak moldatzen ditugu, denak pozik egoteko. Bertan oso ondo pasatzen da, eta oso gomendagarria da parte hartzea, guxtienez esperientzia berri bat izateko.

## putzuak

bazeuden eta badira galdera nor izango da? zer? non? izan ziren? azalduko dira?

itsasoak berriro dakartza galduak berriro bizira behin zirenetik urrun lur berrien lastanera behin galdu zirenak botatakoak baztertuak ukatuak ausartak buru-gabeak ihes egitera behartuak

bidai luza bide zidor eta maparik gabe ez kapitain ez haize orratz sakontasuna hotza arrotz apar eta hondar topo egin dute bapatean azalean

gupidarik ez du izan eguzkiak malkoen urmael amaigabeen gaziak dira ametsak infinitua ortzi-muga

hilobi eta bizi bizi eta infernu ura uneoro egarria ezin ase

suak ez dira pizten barne sua ezin itzali hezetanaren ebakiak odolaren aztarna pixkanaka lausotuk ezereza iritsi da desagertu egin da eta dagoeneko ez da izango da?



## Diskgolfean jostatzera!


Ekainaren 11n, Lekunberrin, diskogolf geraldia egin zen Lekunberriko euskaltegian. Parte-hartzaileek euskaraz hitz egiteko eta diskogolfaz gozatzeko aukera izan zuten. Jarduera, Lekunberriko bidegorri inguruan burutu zen. Diskogolfa, golfaren antzekoa da, baina disko hegalaria erabiltzen dira. Diskoa ibilbide batean banatutako saskietara botatz jokatzeko da. Parte-hartzaileek oinarriko arauak eta teknikak ikasi zituzten, jolasteko taldeetan banatu aurretik. Hura, testuinguru ludiko batean euskara erabiltzeko aukera ederra izan zen.



Diskgolferak jolastera hurbildu ziren parte-hartzaileak. Argazkia: Jone Gabari.



Ibai Martirena eta Javier Urriza Erremontari Txapelketako Txapelarekin. Argazkia: Eitb.eus



Javier Urriza, Ibai Martirena, Josetxo Ezkurra eta Xabier Azpiroz. Argazkia: Maialen Andres

## Urriza eta Martirena, Sagardoaren Txapelketako irabazleak

San Joan egunean jokatu zuten Sagardoaren Txapelketako finala Galarretan. Javier Urriza eta Ibai Martirena (Aburuza) erremontistek irabazi zuten, Josetxo Ezkurra eta Xabier Azpiroz (Alorrenea) 2-0 garaituta. Horrez gain, Urrizak lau pilotarien artean onenaren izendapena ere lortu zuen. Giro ederra sortu zen finalean.

## Beti Kozkor futbol taldeen denboraldi amaiera

Beti Kozkor futbol taldeak agur esan dio aurreko denboraldiari. Ekainaren 16an, goizean partidu ugari jokatu zituzten kirolari gazteek. Ohiko talde guztiak desegin eta adin desberdinetako kirolarien artean talde askotarikoak sortu eta horrela jokatu zituzten partiduak. Bertan guraso eta senide ugari elkartu ziren. Geroxeago bazkaltzera joan ziren Lekunberriko Ibarberri Eskola Publikoko patioara eta bertan, sari ugari banandu zituzten. Azkenik, jolas desberdinak eginez amaitu zuten eguna.



Beti Kozkor futbol taldeko jokalariek Lekunberriko zelaietan. Argazkia: Beñat Barberena




Bazkaria Lekunberriko Ibarberri Eskola Publikoko patioan. Argazkia: Beñat Barberena



Beti Kozkor futbol taldeko gazteak bazkalosten jolasten. Argazkia: Beñat Barberena



Aitor Eguzkiza pilotaria. Argazkia: Beñat Barberena



Alai Olleta. Argazkia: Beñat Barberena

## Nafarroako Herriartekoa

Larraun Pilota Taldea Nafarroako Herriarteko txapelketako finalean sartu da. Uztailaren 7an jokatu da Labriten Donezteberen aurkako finala. Finalerdietan, Leitzako pilotariak 3-0 irabazi zieten Altsasuko Burunda frontoian. Txapelketako azken partiduan hurrengo pilotari hauek jokatu dute: Iñaki Galarza - Iñigo Gurrea, Endika Galarza - Aitor Eguzkiza, Egoi Ijurko - Alai Olleta.

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA  
- 948 19 70 70 -  
www.tanatoriosirache.es

amairu bar  
GITXKO PIZZAK,  
KOPA BEREZIAK  
948504352

Antzonia  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antzonia.com  
Uztegi (Arantzazu)

NEKAZARI, S.L.

Kubota  
STIHL

Antonio Carraro

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazaris@hotmail.com

aseguru  
gintza  
XXI

ASEGURU  
AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna  
baberesteko modu bakarra  
behar bezela aseguratua  
egotea da

aseguruak@aseguruak.eus  
943 65 22 20  
Korreo Kalea 7-baxua 20400  
Tolosa

HOSTAL  
BETELU

Eguneko menua,  
karta, plater  
konbinatuak eta  
pizza goxoak

Erreserbak:  
948 51 30 26 - 663 97 67 09

Atabal  
okindogia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etkez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
948513151

● Ani Angelova (Bulgaria), Tsanko Asenov (Bulgaria) eta Stanislava Tsankova (Lekunberri)

# “Mugiroko Ostata zabaldu ondoren, oso pozik sentitzen gara”

**Ani eta Tsanko, jaiotzez bulgariarrak, Stanislavak hiru urte zituela etorri ziren Lekunberrira bizitzera. Bertan hemezortzi urtez egon ziren, eta, duela hiru hilabete, Mugiroko Ostata zabaltzea erabaki zuten. Gaur egun, bertan bizi dira, etorkizun berri bat eraikitzeko asmoz.**

**Nola bururatu zitzaizuen Mugiroko Ostata berriro irekitzea? Noiz eta zergatik zabaldu zenuen?**

**Ani:** Duela denbora asko ireki nahi genuen taberna, eta, lortu dugula ikusita, oso pozik sentitzen gara.

**Tsanko:** Taberna gehiago ikusi genituen, baina ez zitzaizkigun hainbeste gustatu. Mugiroko Ostata aurkitu ahal genuen lekurik hoberena dela uste dut.

**Stanislava:** Nire gurasoek leku ireki bat bilatu nahi zuten, bertan taberna bat martxan jartzeko. Denbora luze

aritu ziren bilatzen, inguruko lekuetan batez ere. Aukera hau aurkitu zutenean betetako amets bat izan zen.

**Ani:** Martxoan hartu genuen taberna, baina maiatzaren 11n zabaldu genuen; prozesua luzea izan da. Momentuz ostegunetik igandera irekitzen dugu. Urtean zehar horrela arituko gara, baina egun berezietarako ez dugu ordutegi bat zehaztu. Hala ere, udarako denboraldian sartu gara jada, eta astean sei egunetan zabaltzen saiatuko gara, atsedenerako egun bat gordeta.

**Zer erronka aurkitu dituzue taberna zabaltzeko prozesuan?**

**Tsanko:** Taberna bi urtez itxita egon zenez, bagenekien erronka handia izango zela horrelako leku bat irekitzea eta horrek sortzen duen urdurtasuna kudeatzea.

Prozesu luzea izan da, lekua gehiago edertu nahi genuen, eta momentuz lanean jarraitzen dugu: barruko eta kanpoko paretak margotu, loreak jarri, garbitu, etab.

**Stanislava:** Tabernan ez dugu ezer nabarmenik berri, baina beze-

*“Prozesu luzea izan da, lekua gehiago edertu nahi genuen, eta momentuz lanean jarraitzen dugu”*

Tsanko Asenovn

*“Bezero guztiak oso atseginak eta maitagarriak dira. Beti etortzen dira, eta oso ongi tratatzen gaituzte; oso pozik gaude bertako eta inguruko bizilagunekin”*

Ani Angelova

roentzako produktu egokiak bilatzen aritu gara, eta horretan jarraitzen dugu: janaria, edaria, postreak, etab. Erabaki horiek hartu behar genituen, pixka bat gehiago kostatu zitzaigun taberna irekitzea. Kafe-makina ere berandu iritsi zen, eta horrek ere zabaltzeko eguna baldintzatu zuen.

**Ani:** Egia da taberna garbitzen denbora mordo igaro genuela, hauts asko baitzegoen bertan. Sukaldea, komunak eta bertako txoko guztiak garbitu behar genituen. Azkenean garbiketa prozesua ohikoa da taber-



na batean, eta are gehiago denbora askoz itxita egon bada.

**Nolako izan da herrikoen eta inguruko erantzuna?**

**Ani:** Bezero guztiak oso atseginak eta maitagarriak dira. Beti etortzen dira tabernara; oso pozik gaude bertako eta inguruko bizilagunekin.

**Stanislava:** Beti galdetzen diegu zertan hobetu dezakegun. Guk, azken finean, bezeroak eroso senti daitezen nahi dugu, etxean bezala. Baina, nire ustez, oso pozik daude eskaintzen dugunarekin.

**Zer aldaketa edo hobekuntza egin dituzue taberna berriro ireki zenuenetik?**

**Ani:** Momentuz, kanpoko eta barruko leihotetan loreak jarri ditugu, eta, aurrerago, kanpoko paretak margotu nahi dugu.

**Stanislava:** Hasieran osatu genuen karta hobetzen ari gara, eskaintzen duguna poliki-poliki jendearen eskarien arabera moldatu eta hobetu nahi dugu. Aldaketa jarraitu bat egin bezala bezeroa pozik egotea ezinbestekoa da guretzat.

**Tsanko:** Umeak jolasteko etxe txiki bat prest daukagu eta taberna ondoan laster jarri nahi dugu. Ia dena prest daukagu, eta tabernaren alboan jartzea gustatuko litzaiguke.

**Zer produktu eskaintzen dituzue?**

**Tsanko:** Menua momentuz ez dugu eskaintzen, baina erreserbaren bidez menu itxia eskatzeko aukera eskaintzen dugu eta produktu ugari ditugu bertan.

**Stanislava:** Gehien entsaladak, plater konbinatuak, patata frijituak, bokatak... momentuan egiten ditugu. Janari asko jartzen dugula platerean, eta bezeroak asko harritzen dira ogitartekoaren tamainarekin. Edarien al-

*“XXL ogitartekoak eta nire amaren postreak dira eskaintzen ditugun plater nagusiak”*

Stanislava Tsankova

detik esango nuke hemen dagoena, betikoa eskaintzen dugula. Gainera, mojito moduko edari desberdinak ditugu, zapore desberdinetakoak.

**Tranko:** Egia da une honetan ez dugula Bulgariako produkturik eskaintzen, baina aurrerago gustatuko litzaiguke.

**Baduzue “etxeko berezitasuna” den platerik?**

**Ani:** Bai, egiten ditugun XXL ogitartekoak, oso handiak eta goxoak, eta etxeko postreak, nik betidanik egiten ditudan eta nire espezialitatea direnak: azenario-tarta, gazta-tarta, etxeko jogurta eta horrelako postreak.

**Zer giro eta esperientzia eskaini nahi diezue bezeroei?**

**Ani:** Nik nahi dudana da bezeroak pozik sentitzea.

**Stanislava:** Etxean bezala sentitzea eta etxera gustura joatea da nahi duguna. Adin guztietako pertsonentzako leku bat sortu dugu, edozein ongietorria da hemen.

**Etorkizunerako beste ideia berririk duzue buruan?**

**Ani:** Ideia mordo dauzkagu.

**Tsanko:** Taberna kanpotik eta barrutik poliki-poliki politago jartzea. Inguruan jada hasi naiz lurrari buelta ematen, bertan loreak jartzeko, eta lanpara batzuk jartzea ere gustatuko litzaiguke, gauean lekua oso iluna delako. Bezeroentzat janari desberdina jarri nahi dugu, eta negurako karpak bat, kanpoko terraza erabiltzeko.

**Stanislava:** Bezeroen iritzia jakitea garrantzitsua da guretzat etorkizunean hobetzeko.

**Zerbait gehiago aipatu nahi duzue?**

**Stanislava:** Askok eskertzen dugu bertako eta inguruko pazientzia eta guregatik egiten ari diren guztia, hasierak beti baitira zailak.

**Tsanko:** Pila bat eskertzen diegu laguntzen diguten bezeroei. Azkenean, tabernak denei esker funtzionatzen du.

**Ani:** Bai, Jende asko etortzen denean pazientziaz itxoi ten dute. Eskerrak eman nahi dizkiegu hurbiltzen diren guztiei, batez ere, gurekin oso ongi portatzen ari direlako.



Ani Angelova, Tsanko Asenov eta Stanislava Tsankova Mugiroko Ostatuan

# KULTUR

**2024** ekainak 21 irailak 28 | **UDAKO KULTUR PROGRAMAZIOA**

**UZI** **IGANDEA 28** **LEKUNBERRI**  
Plaza  
**GAITA BRASS**  
12.00 Del origen

**IRA** **IGANDEA 8** **LEITZA**  
Herriko Enparantza  
**ANARI**  
20.00 Giza Zarata

**IGANDEA 22** **LIZASO-ORGI**  
ANR Orgiko basoa  
**JACK DIATTA & D.J. KAYLF**  
12.00 Kasumaye



## AGENDA

### UZTAILA

- 1-19- Kirol Udalekuak I
- 5-7- Azkarateko festak
- 19-21- Arribeko festak
- 27-28- Astizko festak

28- Gaita Brass, Artaxoako Gaiteroak, 12:00etan, Herriko Enparantzan (Lekunberri).

29-01- Atalluko festak

### ABUZTUA

- 1- Udako Zinea (Lekunberri)
- 2-5- Errazkingo festak
- 3-4- Azpirotzeko festak
- 4- Lekunberriko Antzinako Azoka
- 8- Udako Zinea (Lekunberri)
- 10- Albiasuko festak

14-15- Uztegioko festak

15- Lezaetako festak

22-25- Gorritiko festak

23-24-25- Oderitzeko festak

29-30-31- Iribaseko festak

29- Atalluko festak

### IRAILA

1- Atalluko festen amaiera

1- Iribaseko festen amaiera

1- Nekazari Eguna (Lekunberri)

8- Mendialdeko Azoka Ibiltaria. Talo Eguna (Leitza)

\* Festen egitaraua kontrazalean

## KONTU TXIKIAK

**PERKUSIO IKASTAROA**- Martillo Txikin 2024-2025 ikasturteko izen ematea ireki da. Batukada, perkusioa eta musika, atsegin badituzue... Hau da zure aukera! Parte hartu nahi izanez gero, deitu (679938016) zenbakira

**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
sotilgarajea@gmail.com

**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

serigrafia  
diseinua  
estanzazioa  
kaixo@gko.eus 608 228 234

**TAXILON**  
Lontxo Otamendi Artola  
661 202 249 (9 plaza)  
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

**PUBLIZITATEA MAILOPEN**  
Labrit Multimedia 948 210 103  
mailope@labrit.net

**Iñigo Garaioa MARCOLARIA**  
696 658 288  
LEKUNBERRI

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
OGI BERRI  
ORIN ARTISAUAK 948604884



# Festak

## AZKARATE

### Uztailak 5, ostirala

17:30 Txupinazoa eta herriko jai  
berrie ongi etorria  
17:45 Mus txapelketarako izena-ematea  
18:00 Mus txapelketa azkarra  
19:00 Dantzari txikiak  
AFALTZEKO OGI-TARTEKOAK IZANGO  
DIRA!  
Ondoren DJ ARKI. Ze EARKI!

### Uztailak 6, larunbata

11:00 Ume jolasak  
19:00 Herri kirolak: Maddi Gesalaga 15  
urteko harrijasotzailea eta Ibai Soroa  
eta Eneko Saralegi aizkolariak (4 me-  
troko altuerako aizkora erakustaldia  
izango da)  
21:00 Herri afaria  
00:00 Fan&Go erromeri taldea  
03:00 Sille-jokue  
ONDOREN DJ MALLOZAR

### Uztailak 7, igandea

GORA SAN FERMIN!  
10:45 Plazatik erromeria San Fermin  
ermitara  
11:00 Meza ermitan  
ONDOREN Abilezia jolasak  
14:00 Bertso bazkaria Sebastian Lizaso  
eta Aitor Mendiluzerekin  
19:00 Sagardo dastaketa eta pintxoak  
Egun guztian zehar, LASA eta LU-  
TXURDIO trikitilariak

## ARRIBE

### Uztailak 19, ostirala

18:00 Mus txapelketa  
20:13 Txupinazoa  
21:30 Herri afaria, Lizaso eta Zubeldia  
bertsolariekin. Bi aukera: zikiro jatea  
edo autogestionatua  
00:30 Dantzialdia Muxutruk taldearekin  
Ondoren, DJ Elorri

### Uztailak 20, larunbata

11:45 Ezkil jotzea  
12:00 Puskabiltza herrian zehar  
18:00 Umeen dantza emanaldia  
Ondoren, ume jolasak eta puzgarriak  
23:30 Elektropikala elektrotxaranga  
02:00 Milan eta Rivera DJak

### Uztailak 21, igandea

9:00 Goiz soinua  
12:00 Meza  
Ondoren, XXII. patata tortilla lehiaketa  
17:00 Gazteen arteko pilota partidak  
19:00 Herri kirol saioa. Inaxio Perurena  
eta herriko aizkolariak  
20:30 Triki poteoa

## ASTITZ

### Uztailak 27, larunbata

12:00 Erronda etxez etxe akordeoila-  
riarekin  
17:00 Mus txapelketa  
17:30 Helduentzako jolasak eta musi-  
ka arratsaldean zehar  
22:00 Herri afaria  
00:30 "Streetwise" taldearen kontzertua  
2:00 Dj Hiru Hirukiak

### Uztailak 28, igandea

12:00 Mutil eta nesken pilota parti-  
duak  
18:00 Dantza erakustaldia  
18:00 Mus txapelketaren finala  
19:30 "Adrian eta Cecilia"-ren kontzertua

## ERRAZKIN

### Abuztuak 2, ostirala

15:30 Txupinazoa Auztegian eta Pus-  
kabiltza beheko etxeetatik hasita.  
00:30 Trikidantz  
03:00 DJ Zaze

### Abuztuak 3, larunbata

11:30 Ume jolasak  
14:30 Bazkari autogestionatua plazan  
Ondoren, Bingoa eta jokuak.  
20:00 Gabezin  
21:30 Bokatak eta hanburgesak  
elkartean  
23:30 Gabezin  
02:00 DJ Izzei

### Abuztuak 4, igandea

12:00 Pelota partidukoak  
17:00 Gazte kuadrilen arteko apustua  
18:00 Aizkora apustua  
20:00 Tortilla, gazta eta urdaiazpiko  
pintxoak, kupelakin

### Abuztuak 5, astelehena

14:00 Zikiro jatea  
17:30 Mus txapelketa

## UZTEGI

### Abuztuak 14, asteazkena

11:30 Txupinazoa  
12:00 Puskabiltza  
20:30 Presoen aldeko brindisa  
21:00 Kantu afaria ostean: DJ herrikoia

### Abuztuak 15, osteguna

Meza nagusia  
12:00 Pilota partidu ostean: bermuta:  
toka, sokatira eta pintxo lehiaketaz  
girotua  
17:00 Mus txapelketa  
19:00 Bertso saioa

\*Abuztuak 15 arratsaldean haurren-  
tzako txokoa egongo da

## GORRITI

### Abuztuak 22, osteguna

10:30 Gosaria Haize-Txulo elkartean  
11:30 Etxez etxez tritilariekin alaittue

### Abuztuak 23, ostirala

11:30 Herriko krosa  
14:00 Bazkari frontonen Euskal  
Parrillakin  
17:00 Musika alaitzeko  
20:00 Mus txapelketa eta jolasak  
frontonen  
22:00 Tortilla lehiaketa eta pintxoak  
00:30 GABEZIN  
04:30 DJ ZAZE

### Abuztuak 24, larunbata

11:30 Ume jokuk frontonen  
17:30 Pilota partiduk  
21:30 Aparie Txomin Parrillakin  
23:30 EINGO taldea

### Abuztuak 25, igandea

12:00 Herri Kirolak  
18:00 Bertso jaialdia, ondoren pintxo  
eta sagardo dastaketa